

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 3406

*AGINDUA, 2022ko uztailaren 14koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez kargutik kentzen baitira langileen ordezkari baten ordezkoa eta Administrazioaren ordezkari baten ordezkoa, eta berriak izendatzen baitira Lanpostuen Balorazio Batzordean.*

Apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Lanpostuen Balorazio Batzordea sortu zen, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari atxikitako organo gisa. Batzorde horren helburua da baloratzeko bidaltzen zaizkion lanpostuak aztertzea eta lanpostu bakoitzari balio bat ematea, atxikita dagoen antolamendu-egituraren barruan.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko abenduaren 21eko Aginduaren bidez, Lanpostuen Balorazio Batzordearen lehen osaera osatuko duten kideak izendatu ziren. Agindu hori hainbat aldiz aldatu da.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko abenduaren 21eko Aginduaren bidez, Juan Carlos Lander Gamba jauna izendatu zen ELA sindikatuaren ordezkarietan ordezkari gisa.

Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2009ko azaroaren 10eko Agindu bidez, Marisa Jiménez García andrea izendatu zen Administrazioaren ordezkarietan ordezkari gisa.

Batetik, ELA sindikatuak jakinarazi duenez Francisco Javier Legorburu Faus jauna hautatu duela sindikatuak Lanpostuen Balorazio Batzordean duen ordezkariaren ordezkari gisa, Juan Carlos Lander Gamba jaunaren ordezkari gisa, eta, bestetik, Marisa Jiménez García erretiroa hartu duenez, eguneratu egin behar da apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaren arabera sortutako Balorazio Batzordearen osaera.

Hortaz, dekretu horren 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoa kontuan izanik,

#### EBAZTEN DUT:

Juan Carlos Lander Gamba jauna Lanpostuen Balorazio Batzordearen ordezkari gisa kargutik kentzea, eta, haren ordezkari gisa, ELA sindikatuko Francisco Javier Legorburu Faus jauna izendatzea.

Marisa Jiménez García andrea Lanpostuen Balorazio Batzordeko Administrazioaren ordezkari gisa kargutik kentzea, eta, haren ordezkari gisa, Alejandro Barreiro Asensio jauna izendatzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 14a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.